



Gazteen Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de la Juventud



GAZTE EKIPAMENDUEN DEFINIZIO ETA
SAILKAPENERAKO PROPOSAMENA

GAZTE EKIPAMENDUEN DEFINIZIO ETA SAILKAPENERAKO ERAKUNDE ARTEKO BATZORDE TEKNIKOA

2005EKO AZAROAREN 29A

Gazte ekipamenduen definizio eta sailkapenerako proposamena

Dokumentu honek gazte ekipamenduen definizio eta sailkapenerako proposamena jasotzen du. Proposamena horretarako berriaz sortutako Erakunde Arteko Batzorde Teknikoak prestatu eta adostu du. Batzorde Teknikoa jarraian ageri diren erakundeetako ordezkariak osatuta dago:

- Eusko Jurlaritzak.
- Arabako Foru Aldundia.
- Bizkaiko Foru Aldundia.
- Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Eudel, Arabako lurraldearen ordezkari gisa.
- Eudel, Bizkaiko lurraldearen ordezkari gisa.
- Eudel, Gipuzkoako lurraldearen ordezkari gisa.
- EGK-Euskadiko Gazteriaren Kontseilua.

Halaber, Batzordean parte hartzen duten pertsonetako batzuek gazte ekipamenduekin zerikusia duten gaur egungo eta etorkizuneko premiei buruzko ekarpenak egin dituzte. Ekarpen horiek ez daude dokumentu honetan jasota, premien diagnosira eta analisisira bideratuta egongo den bigarren fase bati dagozkion edukiak baitira.

AURKIBIDEA

I.-GAZTE EKIPAMENDU KONTZEPTUAREN DEFINIZIOA.....	3
Gazte ekipamendu kontzeptuaren definizioan dauden aldagaiak	3
1.- GAZTE EKIPAMENDU MOTAK, beharrezko azpiegituraz eta baliabidez hornituriko espazio fisikoaren aldagaiaren arabera	4
2.- GAZTEENTZAKO ZERBITZU, PROGRAMA ETA JARDUERA MOTAK.....	6
a) Topaguneen zerbitzua.....	7
b) Gizarte eta kultura jardueren zerbitzua	8
c) Baliabideen zerbitzua	9
d) Informazio eta orientazio zerbitzua	11
e) Aholkularitza zerbitzua.....	13
f) Ostaturako eta egonaldietarako zerbitzua	14
g) Prestakuntza zerbitzua	18
3.- ADINAREN ALDAGAIAREN DEFINIZIOA	19
II.- GAZTE EKIPAMENDUEN SAILKAPENA	
1.- Hartzaileen arabera (pertsonek edo taldeak)	20
2.- Espazio fisikoaren arabera	20
3.- Edukizaitzaileen ezaugarrien (espazio fisikoaren) arabera, eskainiko den zerbitzua ikusita.....	21
4.- Baliabide materialen ezaugarrien arabera, eskainiko den zerbitzua ikusita.....	22
5.- Kudeatzeko moduen arabera	23
6.- Eskura dauden giza baliabideen arabera, eskainiko den zerbitzua ikusita.....	24
7.- Ekipamenduaren titulartasunaren arabera	25
8.- Erabiltzeko moduen arabera.....	25
9.- Erabil daitezkeen aldiaren arabera	25
ERANSKINA: Araudia	26

I.- GAZTE EKIPAMENDU KONTZEPTUAREN DEFINIZIOA

Gazte ekipamendua gazteei zerbitzuak, programak eta jarduerak eskaintzeko beharrezkoak diren azpiegituraz eta baliabidez horniturik dagoen espazioa da.

Gazte ekipamendu kontzeptuaren definizioan dauden aldagaiak

Ekipamendu kontzeptuaren definizioa jarraian zehazten diren aldagaiak mugatzen dute. Beherago emango ditugu aldagai horien definizioak.

- 1.- Beharrezkoak diren azpiegituraz eta baliabidez horniturik dagoen espazio fisikoa.
- 2.- Eskaintzen dituen zerbitzu, programa edo jarduerak gazteen eskura jartzea.
- 3.- Hartzaileak.

Edonola ere, erabilera publikoko ekipamenduak bakarrik hartuko dira kontuan (titulartasun publikokoak zein pribatukoak).

1.- GAZTE EKIPAMENDU MOTAK, beharrezko azpiegituraz eta baliabidez hornituriko espazio fisikoaren aldagaiaren arabera

Ekipamendu mota, azpiegituraren eta baliabideen arabera	Gaur egungo izendapena(k)	Proposatutako izendapena
1. Gazteen topagunea. 2. Gazteei jarduerak eskaintzeko lokala.	<i>Gaztetxea, gaztelekua, gaztegunea, gaztelokala, gaztetxokoa, casa de juventud, club joven, centro juvenil...</i>	
3. Gazteentzako baliabideen lokala.	<i>Gazte elkarteentzako baliabideen lokala, gazte elkartearen etxea, gazteentzako baliabideen zentroa, entseguetarako lokala, grabaketetarako lokala, informatika gela, materialen alokairurako lokala...</i>	
4. Gazteentzako Informazio Bulegoa.	<i>Gazteentzako Informazio Bulegoa.</i>	Gazteentzako Informazio Bulegoa.
5. Gazteentzako Informazio Gunea.	<i>Gazteentzako Informazio Gunea.</i>	Gazteentzako Informazio Gunea.
6. Aholkularitza bulegoa.	<i>Aholkularitza...</i>	Gazteentzako aholkularitza bulegoa.
7. Gazte aterpetxea.	<i>Gazte aterpetxea.</i>	Gazte aterpetxea.
8. Kanpaldirako instalazio finkoa.	<i>Kanpaleku iraunkorra.</i>	Gazteen kanpaldirako instalazio finkoa
9. Haur eta gazteen astialdiko hezitzaileen eskola.	<i>Haur eta gazteen astialdiko hezitzaileen eskola.</i>	Haur eta gazteen astialdiko hezitzaileen eskola.
10. Erabilera anitzeko gazteentzako lokala.		
11 Ekipamendu birtuala.		

Ez dira gazte ekipamendutzat hartuko:

- Lokal pribatuak, edo erabilera pribatukoak diren lokalak (hala nola lonjak, udalekuetarako etxeak edo ostatu hartzeko edo gaua emateko erabilera murriztuko bestelako instalazioak, baldin instalazioen jabe diren entitateen edo pertsonen bazkideek bakarrik erabil baditzakete, beti ere instalazioak erabiltzearen edo zerbitzuren bat jasotzearen truke ordain ekonomikorik ematen ez bada). Horiek guztiek aplikatu dakiekeen arloko araudia bete beharko dute.
- Ekipamendu orokorrak (gizarte etxeak eta abar) eta gazteei bakarrik zuzendurik ez dauden bestelako lokalak.
- Kirol-ekipamenduak, hala nola edozein kirol praktikatzeko dutenei ostatu emateko instalazioak (adibidez, errendimendu handiko zentroak, mendiko aterpeak eta abar).
- Lege edo arloko araudiren batek arauturiko bestelako ekipamendu edo lokalak.

2.- GAZTEENTZAKO ZERBITZU, PROGRAMA ETA JARDUERA MOTAK

Gazte ekipamenduetan eskaintzen diren zerbitzu motak:

- Zerbitzu bakarra eskaintzen duten ekipamendu edo lokalak:
 - a) Topaguneak.
 - b) Gizarte eta kultura jarduerak.
 - c) Baliabideen zentroa.
 - d) Informazioa eta orientazioa.
 - e) Aholkularitza.
 - f) Ostatua eta egonaldia.
 - g) Prestakuntza.
- Zerbitzu bat baino gehiago eskaintzen duen espazioari erabilera anitzeko ekipamendua deitzen zaio.

Gizarte eta kultura zerbitzu moten taula, zerbitzuok eskaintzen diren ekipamenduarekiko korrespondentziarekin:

Gizarte eta kultura zerbitzua	Ekipamendu mota
a) Topagunea.	Gazteentzako lokala.
b) Gizarte eta kultura jarduerak.	Gazteei gizarte eta kultura jarduerak eskaintzeko lokala.
c) Baliabideen zentroa.	Gazteentzako baliabideen lokala.
d) Informazioa.	Gazteentzako Informazio Bulegoa.
	Gazteentzako Informazio Gunea.
e) Aholkularitza.	Aholkularitza bulegoa.
f) Ostatua eta egonaldia.	Gazte aterpetxea.
	Gazteen kanpaldirako instalazio finkoa.
g) Prestakuntza.	Haur eta gazteen astialdiko hezitzaileen eskola.
h) Aipaturiko zerbitzuetako bi edo gehiago.	Erabilera anitzeko gazteentzako lokala.

a) Topaguneen zerbitzua

Zerbitzu honen ezaugarri nagusia gazte bati bere taldeko edo bere inguruko beste gazte batzuekin biltzeko espazioa eskaintzean datza. Gainera, gazteak bere intereseko beste alderdi batzuk lantzeko aukera izango du bertan.

▪ Ekipamendu mota

➤ Gazteen topagunea (1. ekipamendu mota)

- Ezaugarriak:

Izendapen ugari izan ohi du: *gaztetxea, gaztelekua, gaztegunea, gaztelokala, gaztetxokoa, casa de juventud, club joven, centro juvenil* eta abar.

Ekipamendu hauek udalaren jabetzapekoak izan ohi dira.

b) Gizarte eta kultura jardueren zerbitzua

Aisia subjektuak astialdia betetzeko autonomiaz hautatzen duen modu positiboari deritzo. Modu positiboan betetako astialdi horren barruan hainbat ekintza sartzen dira, partehartze maila desberdinekoak: olgeta hutsetik hezkuntza ez formaleraino doazenak. Horiek guztioriek **gizarte eta kultura jarduerak** izeneko multzo generikoan sartuta daude, gazteek burututako gizarte eta kultura jarduerak, alegia.

▪ Ekipamendu mota

➤ Gazteei gizarte eta kultura jarduerak eskaintzeko lokala (2. ekipamendu mota)

• Definizioa:

Inguruetakoa, udaleko edo eskualdeko gazteei —banaka zein taldeka— gizarte eta kultura jarduerak eskaintzera bideratutako ekipamendua da.

• Ezaugarriak:

Izendapen ugari izan ohi du: *gaztetxea, gaztelekua, gaztegunea, gaztelokala, gaztetxokoa, casa de juventud, club joven, centro juvenil* eta abar.

Ekipamendu hauek udalaren jabetzapekoak izan ohi dira.

c) Baliabideen zerbitzua

Baliabideen zerbitzuan giza baliabideen eskaintza eta/edo baliabide materialen mailegu edo lagatzea barne hartuta daude. Material horiek elkarteak eta gazteen ekimenak sustatzera, gazteek kultura sortu eta sustatzera edo gazteen osasuna sustatzera zuzendurik daude.

▪ **Ekipamendu motak**

➤ Elkarteentzako baliabideen lokala (3. mota: Gazteentzako baliabideen lokala)

- Definizioa:

Gazteen edo gazte taldeen artean partekatzeak diren baliabide komunak eskura jartzen dituen ekipamendua da.

- Ezaugarriak:

Gazteen taldeek dituzten premia eta interesak garatzen laguntzeko espazio gisa ulertu behar da. Kasu jakinetan, norbanakoentzako baliabideak ere eskaintzen ditu.

Honako zerbitzu hauek eskaini ohi ditu: liburutegia, hemeroteka, Internet, kanpatzeko materialaren mailegu-zerbitzua, ikus-entzunezko materialarena eta, oro har, astialdirako materialarena eta abar.

➤ Gazteen sorkuntza kulturalerako lokala (3. mota: Gazteentzako baliabideen lokala)

- Definizioa:

Gazteen artean —bai banaka bai taldeka— kultura sorkuntza bultzatzeko ekipamendua da.

- Ezaugarriak:

Oro har, honakoez horniturik egon ohi da: entsegu aretoak eta/edo musika grabaketak egiteko aretoak, ikus-entzunezko materialekin esperimentatzeko ekipoak dituzten lokalak, informatika gelak eta abar.

➤ Osasunaren sustapenerako gazteentzako lokala (3. mota: Gazteentzako baliabideen lokala)

- Definizioa:

Gazteei bereziki eragiten dieten kasuetan osasunaren arloko baliabideak eskaintzen dituen ekipamendua da.

- Ezaugarriak:

Ahal izanez gero, honako ezaugarriak izango ditu: ez da fisikoki beste osasun ekipamenduren batean sarturik egongo; arreta pertsonalizatua emango du; ez da aurretiazko zitarik beharko; erabiltzailearen anonimatua erabat babestuko du (beharrezkoa baldin bada); berariaz gazteenak izan ez arren, gazteengan agertze hutsagatik konponbide berezia behar duten hainbat arazori aurre egiteko espazioa izango da; osasun-arazoak ez ezik, osasungarri ez diren jokaerei aurre hartzeko (eta jokaera osasungarriak sustatzeko) espazioa ere izango da; gizarte eta osasun informazioa eskainiko du; gazteei arreta emateko moduei ardura berezia eskainiko die.

d) Informazio eta orientazio zerbitzua

- **Gazte informazioaren kontzeptuaren definizioa**

Gazte informazioa deritzo gazteek eurengan eragina duen edo interesa pizten duen gai jakin bati buruz dakitena osatu edo zehaztuko duten ezagutzen komunikazio zabal, objektibo eta eguneratuari. Gazte informazioak gazteari helduarora igarotzen laguntzen dio.

- **Gazteentzako orientazioaren kontzeptuaren definizioa**

Orientazioa ematea hasierako informazio bat aipu eta iradokizunen bidez osatzean datza, interesdunari bere kontsultak eragin edo zehaztu duen helburu edo xedera heltzen laguntzeko.

- **Gazteentzako Informazio Zerbitzuaren kontzeptuaren definizioa (GIZ)**

Gazteentzako Informazio Zerbitzua izeneko ekipamenduaren helburu nagusia da informazioa emateko izaera duten jarduerak gauzatzea. Jarduera horiek zuzenean gazteei bideratzen eta eskaintzen zaizkie. Gazteentzako Informazio Zerbitzuak orientazioa ere eman dezake.

- **Ekipamendu motak**

- Gazteentzako Informazio Bulegoa (GIB) (4. mota)

- Definizioa:

Tokiko edo eskualdeko izaera du, eta honako funtzioak betetzen ditu:

- Gazteentzat interesgarria izan daitekeen informazio oro bilatu, tratatu eta lantzen du.
- Informazioa ahalik eta gazte kopururik handienari zabaltzen dio, beti ere bere lurralde eremuaren barruan.
- Astean gutxienez 20 orduz eta lau egunetik gora emango die gazteei arreta zuzena.

- Gazteentzako Informazio Gunea (GIG) (5. mota)

- Definizioa:

Gazteari informazioa zuzenean ematen dio, astean gutxienez sei orduz. Erabiltzen duen material informatiboa lotuta duen GIBetik jasotzen du guztiz edo zati batean edo, bestela, dagokion Informazioko Lurralde Zentrotik (ILZ).

e) Aholkularitza zerbitzua

▪ Gazteentzako aholkularitzaren kontzeptuaren definizioa

Aholkularitza eskatzen duen orori gai jakin bati buruz aholku ematean datza, orientatzaileak gai horri buruz dituen ezagutza espezifikoak baliatuta. Horretarako, orientatzaileak berariazko prestakuntza izan beharko du.

▪ Aholkularitza motak (6. ekipamendu mota: Gazteentzako aholkularitza bulegoa)

- Aholkularitza psikosexuala edo sexualitateari buruzko aholkularitza.
- Orientazio psikologikoko, osasun mentaleko eta osasun emozionaleko aholkularitza.
- Osasuna sustatzeko aholkularitza.
- Familia plangintzari buruzko aholkularitza.
- HIESari buruzko aholkularitza.
- Droga-mendekotasunei buruzko aholkularitza.
- Emakumearentzako aholkularitza: bikotearengandiko banaketak, jazarpenak...
- Lesbianeiei, gayei eta transexualei buruzko aholkularitza.
- Sektei buruzko aholkularitza.
- Autoenpleguari, langabeziari zein lan-kontratuei eta abarri buruzko aholkularitza.
- Etxebizitzari buruzko aholkularitza.
- Elkartegintzari, boluntario lanari eta abarri buruzko aholkularitza.
- Lankidetzari buruzko aholkularitza.
- Naturari eta ingurumenari buruzko aholkularitza.

f) Ostaturako eta egonaldietarako zerbitzua

Ostatu eta egonaldietarako zerbitzua deritzo taldean zein banaka gaua emateko prestatuturiko instalazioa eskaintzeari.

▪ **Ekipamendu motak:**

➤ Gazte aterpetxea (7. mota)

• **Definizioa:**

Gazte aterpetxea izenekoa gazteei taldean zein banaka ostatu emateko xedea duen instalazioa da. Bestelako kolektiboetara ere ostatu eman dakieke, baldintza jakinetan (iragaitzaz daudenentzako leku gisa, egonaldi bat egin nahi dutenentzako edo jarduera jakin bat egin nahi dutenentzako).

• **Ezaugarriak:**

Oro har, pertsona batentzako edo pertsona anitzentzako logelak ditu (ohe edo literekin), komunarekin edo gabe; eta egongelak edo langelak. Jantoki zerbitzua edo sukaldea ere ipin ditzake erabiltzaileen eskura. Kirol instalazioez eta bestelako gizarte eta kultura zerbitzuez horniturik egon daiteke baita.

• **Aterpetxe motak:**

○ Haur eta Gazte Taldeentzako Euskadiko Instalakuntza eta Aterpetxe Sarearen mendeko gazte aterpetxea:

• **Definizioa:**

Gazteen taldeei zuzendurik dagoen aterpetxea da. Haur eta gazte taldeen egonaldi eta ostaturako instalazio eta aterpetxeen antolamenduari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera aintzatesita dagoen ekipamendua da.

• **Ezaugarriak:**

Haur eta gazte taldeen egonaldi eta ostaturako instalazio eta aterpetxeen antolamenduari buruz indarrean dagoen araudiaz gain, ekipamenduak aplikatu dakiokeen arloko araudia ere bete behar du.

Foru Administrazioei dagokie instalazio hauek ikuskatzea. Hori dela eta, beharrezkoa izango da araudia betetzen ez dutenak ixtea ahalbidetzen duen zehapen araubidea edukitzea.

Aterpetxea aintzatetsita eta Euskadiko Aterpetxe Sarean sartuta dagoen momentutik, automatikoki geratuko da Gazte Aterpetxeen Espainiako Sarean ere aintzatetsita eta ordezkatuta.

Aterpetxea erabiltzeko aterpetxekide txartela eskatu ahal izango zaio erabiltzaileari, beti ere aterpetxearen modalitatearen arabera.

- ***Gazte aterpetxeen kategoriak*** (kategorietako bakoitzaren baldintzen arabera eta zerbitzuen kalitatean, arkitekturan, segurtasunean eta higieanean ezartzen diren gutxienezko eskakizunak ikusita):

*** Aterpetxea.

** Aterpetxea.

* Aterpetxea.

Gazte aterpetxearen kategoria berrikus daiteke sailkapen batetik bestera igarotzeko, jabe den entitateak edo pertsonak hala eskatzen badu.

Era berean, Euskadiko Aterpetxeen Sareak eta Gazte Aterpetxeen Espainiako Sareak aintzatetsitako gazte aterpetxe baten jabe den entitate edo pertsonak, egoki baderitzo, instalazioa *nazioarteko gazte aterpetxe* izendatzea eska dezake nahi duenean.

o Nazioarteko gazte aterpetxea:

- Definizioa:

Nazioarteko gazte aterpetxea Gazte Aterpetxeen Nazioarteko Federazioa/International Youth Hostel Federation (IYHF) erakundeak aintzatetsitako aterpetxea da. Aterpetxekide txartela (familiarra, taldeena, helduen banakakoa edo gazteen banakakoa) duen orori edo ongietorri zigiluak ordaintzen dituen orori zuzenduta dago. Txartelak, balio izateko, IYHF erakundearen barne hartuta dagoen edozein aterpetxe elkartek eman beharko du.

- Ezaugarriak:

Gazte Aterpetxeen Nazioarteko Federazioa/International Youth Hostel Federation (IYHF) erakundearen aitzatespena Eusko Jauriaritzaren bitartez izapidetzen da, gazte aterpetxearen jabe den entitate edo pertsonak eskatzen duenean, beti ere aterpetxea Euskadiko Aterpetxe Sareak eta Gazte Aterpetxeen Espainiako Sareak aintzatetsita badago.

Aterpetxe hauek erabiltzeko nahitaezkoa da aterpetxekide txartela edukitzea.

- ***Nazioarteko gazte aterpetxeen kategoriak*** (hiru kategoria daude, Gazte Aterpetxeen Nazioarteko Federazioak —International Youth Hostel Federation (IYHF) erakundeak— ezartzen dituen kalitate parametroen arabera):

*** Aterpetxea.

** Aterpetxea.

* Aterpetxea.

Aterpetxearen jabe den entitate edo pertsonak ez du erabakitzen bere aterpetxea nazioartekoa izango den ala ez. Gazte aterpetxearen kategoria berrius daiteke, jabe den entitateak edo pertsonak hala eskatzen badu. Horrela, instalazio osoak kategoria eta maila batetik bestera igarotzeko aukera izango du, beti ere eskatutako baldintzak betetzen baditu. Foru Administrazioei dagokie instalazio hauek ikuskatzea.

Hori dela eta, beharrezkoa izango da araudia betetzen ez dutenak ixtea ahalbidetzen duen zehapen araubidea edukitzea.

➤ Gazteen kanpaldirako instalazio finkoa (8. ekipamendu mota)

- Definizioa:

Oinarrizko hornidura duten aire zabaleko instalazioak dira. Behar bezala aintzatetsita dauden entitate edo erakundeek antolatuta, haur eta gazteen taldeekin egonaldiak egitera bakarrik bideratuta daude.

- Ezaugarriak:

Honako ezaugarriez horniturik dago: sarbide seinaleztatua; mugaketa; ur edangarria edo ura edangarri bilakatzeko puntua; eta kanpaldiko jardueretarako oinarrizko zerbitzuak (gaualdietarako eta kanpaldiko sua egiteko eremua, komun higienizatuak, bainuak hartzeko eremua gertu, bai eta jantokia eta sukaldeak jartzeko barrakoiak ere).

Instalazioak, berariazko araudiaz gain (Haur eta gazteen kanpamenduen araubidea, kolonia irekiena, auzolandegiena eta ibilaldiena ezartzen duen Dekretua), aplikatu dakiokkeen arloko araudia bete beharko du.

Foru Administrazioei dagokie instalazio hauek ikuskatzea. Hori dela eta, beharrezkoa izango da araudia betetzen ez dutenak ixtea ahalbidetzen duen zehapen araubidea edukitzea.

Aire zabaleko instalazio hauek ez daude ez Euskadiko Aterpetxe Sareak ez Gazte Aterpetxeen Espainiako Sareak aintzatetsita, ez eta erakunde horietan barne hartuta ere.

g) Prestakuntza zerbitzua

Hezkuntza-sistematik kanpoko prestakuntza arautua:

- Haur eta gazteen astialdiko hezitzaileen prestakuntza.

▪ Ekipamendu mota:

- Haur eta gazteen astialdiko hezitzaileen prestakuntzarako eskola (9. ekipamendu mota)

- Definizioa

Haur eta gazteen astialdiko hezitzaileen prestakuntzarako instalazioa da, haur eta gazteen astialdiko hezkuntza jardueretako begirale eta zuzendari izateko prestakuntza eskaintzeko xedea duena.

- Ezaugarriak

Emango diren prestakuntza ikastaroak egokiro burutu ahal izateko baliabide materialak eta giza baliabideak ditu, bai eta horretarako beharrezkoak diren eginkizun administratiboak zein jarduera pedagogikoak garatzeko ere.

Foru Administrazioei dagokie eskolak aintzatetsi eta ikuskatzea. Hori dela eta, beharrezkoa izango da indarrean dagoen araudia betetzen ez dutenak ixtea ahalbidetzen duen zehapen araubidea edukitzea (azaroaren 2ko 419/1994 Dekretua).

3.- ADINAREN ALDAGAIAREN DEFINIZIOA

Adina: honi dagokionez, **gazte** izango dira 15 eta 29 urte bitarteko adina duten pertsonak.

Kontuan hartu beharra dago badirela beste aro batzuk gaztaroaren aurretik. Aro horietako bakoitzak ekipamenduen definizio eta sailkapenerako prozesu berezia behar du:

- **Nerabezaroa:** 11-14 urte.
- **Hurtzaroa:** 0-10 urte.

Horretarako, gazte ekipamenduen definizio eta sailkapenerako prozesu hau amaitutakoan, bertan erabilitako metodologia bera edo antzekoa erabiltzea proposatzen da.

II.- GAZTE EKIPAMENDUEN SAILKAPENA

Erabilera publikokoak soilik diren ekipamenduetan dauden ALDAGAIK

(titulartasun publikokoak zein pribatukoak)

1.- Hartzailen arabera (persona edo taldeak)

- Berariaz gazteentzat den ekipamendua: gazteek bakarrik zuzendu eta erabilia.
- Haur eta gazte ekipamendua.
- Bestelako jendeak ere erabil dezakeen gazte ekipamendua.

Ekipamendu orokorrak ez dira barne hartuko.

2.- Espazio fisikoaren arabera

- Eraikin exentua.
- Beste eraikin edo ekipamendu batean sarturiko lokala: gazteen erabilerarako bakarrik den espazioa, baina ekipamendu orokor baten barruan kokatuta dagoena, hala nola kultur etxeak, gizarte etxeak...
- Aire zabaleko espazioa.
- Ekipamendu higikorra.

3.- Edukizaillearen ezaugarrien (espazio fisikoaren) arabera, eskainiko den zerbitzua ikusita

<u>Edukizaillearen ezaugarriak</u>	Eskaintzen den gizarte eta kultura zerbitzua	Ekipamendu mota
Espazio berezia.	Topaguneak eta/edo gizarte eta kultura jarduerak.	Gazteentzako lokala.
211/1993 DEKRETUaren arabera: bi eremu bereizi dituen bulegoa (informazioa eta prestakuntza/hedapena) eta sarbide zuzena, oztopo arkitektonikorik gabea.	Informazioa eta orientazioa.	Gazteentzako Informazio Bulegoa.
211/1993 DEKRETUaren arabera: lokal berean egonagatik, beste zerbitzuetatik bereizita dagoen espazioa, kontsultarako material eta euskarriak gordetzeko espazio nahikoa duena, bai eta jendeari arreta emateko ere.	Informazioa.	Gazteentzako Informazio Gunea.
Bulegoa.	Aholkularitza.	Aholkularitza bulegoa.
	Baliabide materialak eta/edo giza baliabideak.	Gazteentzako baliabideen lokala.
406/1994 DEKRETUaren arabera.	Ostatua eta egonaldia.	Gazte aterpetxea.
Aire zabaleko espazio mugatua.	Ostatua eta egonaldia.	Gazteen kanpaldirako instalazio finkoa.
419/1994 DEKRETUaren arabera.	Prestakuntza.	Haur eta gazteen astialdiko hezitzaileen eskola.
Eraikin edo espazio berezia.	Aipaturiko zerbitzuetako bi edo gehiago.	Erabilera anitzeko gazteentzako lokala.

4.- Baliabide materialen ezaugarrien arabera, eskainiko den zerbitzua ikusita

<u>Baliabide materialak</u>	Eskaintzen den gizarte eta kultura zerbitzua	Ekipamendu mota
Areto bat, gutxienez.	Topaguneak eta/edo gizarte eta kultura jarduerak.	Gazteentzako lokala.
211/1993 DEKRETUaren arabera.	Informazioa eta orientazioa.	Gazteentzako Informazio Bulegoa.
211/1993 DEKRETUaren arabera.	Informazioa.	Gazteentzako Informazio Gunea.
	Aholkularitza.	Aholkularitza bulegoa.
	Baliabide materialak eta/edo giza baliabideak.	Gazteentzako baliabideen lokala.
406/1994 DEKRETUaren arabera.	Ostatua eta egonaldia.	Gazte aterpetxea.
	Ostatua eta egonaldia.	Gazteen kanpaldirako instalazio finkoa.
419/1994 DEKRETUaren arabera.	Prestakuntza.	Haur eta gazteen astialdiko hezitzaileen eskola.
Eskaintzen dituen zerbitzuen arabera.	Aipaturiko zerbitzuetako bi edo gehiago.	Erabilera anitzeko gazteentzako lokala.

5.- Kudeatzeko moduaren arabera

➤ Kudeaketa publiko zuzeneko ekipamendua:

Udaleko, mankomunitateko edo Administrazio Publikoaren beste erakunderen bateko langileek zuzentzen dute.

Edonola ere, gazteak guztiz antolatuta eskaintzen zaizkien jarduera eta baliabideen erabiltzaile eta kontsumitzaileak dira.

➤ Zeharkako kudeaketa publikoko ekipamendua:

Kudeaketa hirugarren baten kargu uzten da, kontratazio moduren edo hitzarmenen baten bitartez.

➤ Kudeaketa pribatuko ekipamendua.

➤ Ekipamendu kogestionatua:

Kudeaketa batza, koordinakunde edo talde baten bitartez egiten da. Bertan lokalaren titularra den erakunde publikoko langileak eta gazte elkarteen kideak edo ekipamenduko erabiltzaileak ordezkaturik ageri dira. Hortaz, zerbitzuak eta jarduerak mistoak dira.

➤ Ekipamendu autogestionatua:

Ekipamenduaren erabiltzaileak ordezkatzeko dituen koordinakunde, elkarte edo gazte kolektibo batek zuzentzen du erabat. Kasu honetan, ekipamenduko jarduerak, baliabideak eta orientazioa aurrera eramateko ardura inguruko gazteena da.

6.- Eskura dauden giza baliabideen arabera, eskainiko den zerbitzua ikusita

a) Ekipamenduan lan egiten duten langileen prestakuntzaren arabera.

- Lanpostuan aritu ahal izateko eskatzen den prestakuntza edo titulazioa.

b) Profil eta kategoria profesional moten arabera.

- Karguaren izendapena eta funtzioak
- Kategoria profesionala edo taldea
- Ordaindua/Ordaindu gabea.

<u>Giza baliabideak gaur egun indarrean dagoen araudiaren arabera</u> • <u>Profila</u> • <u>Lanpostuan aritzeko gutxieneko prestakuntza</u>	Eskaintzen den gizarte eta kultura zerbitzua	Ekipamendu mota
	Topaguneak eta/edo gizarte eta kultura jarduerak.	Gazteentzako lokala.
211/1993 DEKRETUaren arabera: gazteen informatzailea. Gutxienez BBB, LH II edo baliokidea.	Informazioa eta orientazioa.	Gazteentzako Informazio Bulegoa.
211/1993 DEKRETUaren arabera: gazteen informatzailea. Gutxienez BBB, LH II edo baliokidea.	Informazioa.	Gazteentzako Informazio Gunea.
	Aholkularitza.	Aholkularitza bulegoa.
	Baliabide materialak eta/edo giza baliabideak.	Gazteentzako baliabideen lokala.
406/1994 DEKRETUaren arabera.	Ostatua eta egonaldia.	Gazte aterpetxea.
	Ostatua eta egonaldia.	Gazteen kanpaldirako instalazio finkoa
419/1994 DEKRETUaren arabera: ▪ Eskolako zuzendaria: unibertsitateko erdi-mailako titulazioa, bai eta Haur eta Gazteen Astialdiko Hezkuntza Jardueretako Zuzendari diploma ere. • Irakasleen klaustroa.	Prestakuntza.	Haur eta gazteen astialdiko hezitzaileen eskola.
	Aipaturiko zerbitzuetako bi edo gehiago.	Erabilera anitzeko gazteentzako lokala.

7.- Ekipamenduaren titulartasunaren arabera

- Publikoa.
- Pribatua.

8.- Erabiltzeko moduaren arabera

- Esklusiboa: gazteek bakarrik erabiltzekoa (banaka, taldeka edo bietara).
- Partekatua: biztanleriaren beste sektore batzuekin partekatzen da (orduen edo egunen arabera...).

9.- Erabil daitekeen aldiaren arabera

- Urte osoan.
- Aldi batez
 - Egunean ordu batzuk.
 - Astean egun batzuk.
 - Urtean hilabete batzuk.

ERANSKINA: Araudia

- ✓ 1.- Dekretua, haur eta gazteen kanpamenduen araubidea, kolonia irekiena, auzolandegiena eta ibilaldiena ezartzen duena (1985eko EHAA).
- ✓ 2.- Dekretua, batetik, haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak trebatzeko eskolak eta, bestetik, haur eta gazteen aisialdi jardueretarako begirale eta zuzendariak trebatzeko ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautzen duena (1985eko EHAA, 1994an eguneratua).
- ✓ 3.- Dekretua, gazteentzako informazio zerbitzuen onespren ofiziala arautzen duena (1993ko EHAA).
- ✓ 4.- Dekretua, haur eta gazte taldeen lojamendu eta egonaldiatarako aterpetxe eta instalakuntza antolaketari buruzkoa (1994ko EHAA).
- ✓ 5.- Legea, jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzekoa (1995eko EHAA).